

2020ko BBK DEIALDIAren PROIEKTUEI LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIEN AGIRIA

BBK-k bere ildo estrategiko desberdinetan gauzaten ari den jardunen esparruan, **2020ko BBK DEIALDIA egin du.**

1. PROIEKTUEI LAGUNTZAK EMATEKO PROGRAMAREN XEDEA

Deialdi honen bidez, **BBK-k** proiektu ekonomiko eta sozial **berritzaileak** sustatu eta garatzen dituzten erakundeei lagundu eman nahi die, gure ekintza planaren ildo estrategikoei jarraikiz Bizkaia-aren gara- penean laguntzen badute:

INKLUSIOA, BERDINTASUNA ETA GIZARTE PARTAIDETZA

Biztanleria ez aktiboaren edo gizarte egoera ahulekoaren integrazioa eta ongizatea ahalbidetzeko, esparru sozialean eta lanekoa parte har dezaten bultzatuta; besteak beste, arlo hauetan:

- **Ezintasuna:** BBK-kezintasuna duten pertsonen inklusioa eta partaidetza soziala babesten jarraitzearen nahia du. Interes berezia izango dute enplegu arrunta lortzeko ekimenek eta ezintasuna duten emakumeen taldeari egokitutako ekintzek.
- **Partaidetza soziala eta zahartze aktiboa:** BBK-k bizkaitarren zahartze aktiboa, gizarteko partaidetza eta garapen pertsonalak (bizi proiektua) babestu nahi ditu. Interes berezia izango dute garapen pertsonalerako bide gisa adineko helduak erronka sozialean parte hartzea sustatu eta, aldi berean, adinekoen bakardadea prebenitzen laguntzen duten ekimenek.
- **Genero berdintasuna:** BBK-k modu iraunkorren eta koherentean babesteko interesa du genero berdintasuna; batez ere, laneko berdintasuna eta gazeria. Interes berezia izango dute nagusiki gazte taldeekin lan eginez sentsibilizazioa sustatzen duten ekimenek.
- **Inklusioa:** Bizkaian bazterkeriaren aurka borrokatzen jarraitu nahi du BBK-k, modu eraginkorrago eta koherenteagoan. Interes berezia izango dute migratzaileak gizartean eta kulturaren integrazioa eskaintzen dituzten ekimenek eta baztertuta geratzeko arriskuan dauden emakumeen taldean arreta jartzten dutenek.
- **Familiak:** BBK-k familia eredu eta paradigma berrien erronkekin aurrera egin nahi die. Interes berezia izango dute familien beharrei erantzuteko hezkuntza erronka berriak eta / edo komunitatearen aktibazioa bultzatzen dituzten ekimenek.

KULTURA

herritarrei kultura eskainiz eta haren balio soziala indartuz, Bizkaiko kultur adierazpenen alde eginda; batez ere, arlo hauetan:

- **Bizkaiko kultur ekitaldiak:** Kultura zabaltzea helburu duten Bizkaiko kultur adierazpen aipagarriak babestu nahi ditu BBK-k. Interes berezia izango dute ikuspegi geografikotik, hainbat udalerritan jarduerak eskainiz Bizkaiko lurralde kohesioa ahalbidetzen dutenek, edo ikuspegi sozialetik, arrazoi desberdinengatik normalean kulturaz gozaterik ez duten pertsonen horretarako aukera ematen dietenek, edota etorkizuneko sormenerako joera berriak sustatuz Bizkaiko kultur sektorea bultzatzen dituzten ekimenek..
- **Euskara eta euskal kultura:** BBK-k, euskara eta euskal kultura sustatu nahi ditu, haiekin erlazionatuta dauden Bizkaiko askotariko kultur adierazpenak sustatuz. Interes berezia izango dute lurralde osoan kalitate handiko euskarazko kultur jarduerak eta programazioa sustatzen dutenek, edo hainbat diziplinan (bertsolaritza, kirola, euskal dantzak...) modu berritzailean euskal kultur tradizioa zaintzea, ezagutaraztea eta zabaltzea sustatzen dutenek, edota .Gizartean euskararen erabilera areagotzea helburu duten proiektu berritzaileak sustatzen dituztenek ekimenek.

HEZKUNTZA, TALENTUA ETA EKINTZAILETZA

Bizkaiko lurraldearen garapen ekonomikoa bultzatzeko helburuarekin, gizarte eragina duen ekintzailletza, berrikuntza eta hezkuntza eta enplegua sustatzeko programak babestuz; batez ere, arlo hauetan:

- **Gizarte eragina duen ekintzailletza:** BBK-k lurraldeko ekosistema ekintzailea babesten jarraitu nahi du, eta, berariaz, gizarte eragina duten enpresa ekimenak sustatu.

Interes berezia izango dute Bizkaiko ekintzailletzaren ekosistema indartu nahi duten ekimenek, ekintzailletza bultzatzeko, ekintzailletza soziala eta inpaktu inbertsioa sustatzeko eta ekintzailletza kultura bultzatzeko programa berritzaileak garatuz.

- **Talentua eta enplegua:** BBKren nahia da prestakuntza eta enplegu programa berritzaileak babesten jarraitzea.

Interes berezia izango dute langabeen poltsa espezifikoetako lotutako enplegu programa pilotuek eta eskaintzaren eta eskariaren arteko hutsuneak estaltzen dituzten prestakuntza/enplegagarritasun programa berritzaileak.

- **Hezkuntza berrikuntza:** BBK-k programa pilotu eta froga programen bidez haur eta gazteen hezkuntza garatzearen alde egitearen alde apustua egin nahi du, hezkuntza sistemaren osagarri gisa.

Interes berezia izango dute zenbait gaitasun garatzea (sormena, espiritu kritikoa, ekintzailletza, arazoak konpontzeko gaitasuna, lidergoa) eta trebetasun zientifikoak eta STEAM trebetasunak indartzea helburu duten programek.

Hori guztia kontuan hartuta, oinarrien agiriko baldintzak betetzen dituzten proiektuetatik BBK-k ezarritako irizpideen arabera balorazio onena jaso dutenak hautatuko dira.

2. ERAKUNDE ESKATZAILEEN BALDINTZAK

Irabazi asmorik gabeko erakundeek edo legez eratuta dauden hirugarren sektoreko erakundeek eskatu ahal izango dituzte oinarrien agiri honetako laguntzak; besteak beste, erakunde hauek: fundazioak, elkarteak, onura publikoko eta gizarte ekimeneko kooperatibak, gizarte ekintzako irabazi asmorik gabeko erakundeak, garapenerako lankidetzako gobernuz kanpoko erakundeak, laneratze enpresak eta enplegu zentro bereziak.

Baldintza hauek bete behar dituzte horiek guztiek:

- a) Legez eratuta eta dagozkion erregistroetan inskribatuta egotea.
- b) Beren jarduera nagusia aurreko atalean zehaztutako arloetan garatzea (jarduera hori erakundearen estatutu sozialetan jasota egongo da).
- c) Proiektua gauzatzeko kaudimena duela ziurtatzea, horretarako behar den dokumentazioaren bidez.
- d) **Azken 5 urteetako** deialdietan parte hartu izanez gero, BBK-k emandako laguntzak justifikatu izatea.
- e) Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatea.

Era berean, kontu bat izan behar da Kutxabank-en, eta bertan sartuko zaio dirua onuradunari.

Erakunde eskatzaileek, agiri honetako 1. atalean zehazturiko arlo bakoitzeko proiektu bakarra aurkeztu dezakete.

Administrazio publikoek, erakunde autonomoek, unibertsitateek eta antzekoek ezin izango dute proiekturik aurkeztu.

3. PROIEKTUEN BALDINTZAK

Bizkaian garatuko dira proiektuak, eta lurralde horretan bizi direnak izango dituzte hartzaile gisa. Bizkaiko lurraldetik kanpo ere gauzatzen diren proiektuei dagokienez, hartzaile gisa Bizkaiko lurraldean bizi direnak dituen zatia soilik finantzatu ahal izango da.

Oinarrien Agiri honetan aipatutako laguntzak eskatzen dituzten proiektuek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) BBKren ildo estrategikoekin bat etortzea, baita adierazitako jardun eremu espezifikoekin ere (%15)

Kontuan izango da aurkeztutako proiektuaren helburua BBKren ildo estrategikoetan ezarritakoekin bat etortzea, baita oinarri hauetako 1. atalean adierazitako jardun eremu espezifikoetan jasotakoekin ere.

b) Proiektuaren izaera berritzailea (%10)

Deialdi honetan babestutako proiektuak berritzaileak izan behar dira, eta bizkaitarren behar nagusiei irtenbide berriak eskaini behar dizkiete.

c) Gizarte eragina (%30)

Babestutako proiektuek gizarte eragin garbia izan behar dute; hau da, aldaketa bat eragin (eraldaketak, onurak, ikaskuntza eta bestelako efektuak) onuradun diren interes talde desberdinetan.

d) Garatu beharreko jarduerak (%7,5)

Ezarritako helburua erdiesteko burutu nahi diren jarduerak planifikatzea eta haien koherentziari eustea izango du ardatz.

e) Eskatutako zenbatekoa (%10)

Arau orokor gisa, BBK-k proiektuaren aurrekontu osoaren %75 finantzatu du gehienez. Erakundeak zati bat finantzatzen badu eta % 75 baino gutxiago eskatzen badu, puntu gehiago izango ditu.

f) Erakunde eskatzailea (%7,5)

Kontuan izango dira kolaboratzaileen ospea eta proposamena zenbait kolaboratzailek elkarrekin aurkeztea.

g) Proiektuaren ikusgaitasuna (%20)

Kontuan izango da proiektua eta haren helburua ikusgai jartzea, baita berariaz BBK-k proiektuan lagundu duela aipatzea ere.

BURUTZEKO EPEA

Proiektuak edo, gutxienez, finantzatutako fasea burutzeko epea 12 hilabetekoa izango da. Finantzatutako proiektuak edo faseak 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31 bitartean hasi beharko dira.

Hainbat deialditan aurkeztu den urte anitzeko proiektua hiru aldiz finantza daiteke, gehienez ere 12 hilabeteko epea estaliz aldiro.

Hala ere, emandako zenbatekoa pixkanaka murriztuko da, aurkeztutako proiektuek epe luzerako jasangarritasun finantzarioa ziurta dezaten. Horrela, 3 aldiz onartutako proiektu berak finantzaketa eskema hau izango du:

	1. urtea	2. urtea	3. urtea
BBK-k emandako zenbatekoa	Gehienez proiektuaren aurrekontuaren %75	Gehienez proiektuaren aurrekontuaren %56,25	Gehienez proiektuaren aurrekontuaren %37,5

Inola ere ez da emango 50.000 eurotik gorako zenbatekorik.

4. FINANTZAKETA BALDINTZAK

Erakunde onuradunei esleitutako zuzkidura ekonomikoa proiektua gauzatzearekin zuzenean lotutako inbertsioak eta gastuak estaltzeko erabiliko da, eta argi eta garbi azaldu beharko da proiektua garatzeko beharrezkoa dela.

Kudeaketa eta administrazio gastuak, proiektua sortzekoak barne, ezin izango dira izan proiektuaren aurrekontu osoaren edo, hala badagokio, BBK-k proiektuari esleitutako zuzkidura ekonomikoaren %10 baino handiagoak.

Oro har, ezin izango da eskatu laguntza gastu hauek estaltzeko:

- **Erakunde eskatzailearen ohiko egoitza mantentzearen** ondorioz sortutakoak.
- Proiektuaz arduratzen den taldearen **dietai, egonaldiei eta bidaiari** dagozkienak.

Hala ere, debeku horretatik kanpo geratuko dira proiektua gauzatzeari zuzenean egotz dakizkiokeen gastuak, beti ere, BBK-k zentzuzko balioztat hartzen baditu.

Hautatua izanez gero, sinatutako hitzarmena indarrean dagoen bitartean gauzatuko da proiektua. Nolanahi ere, ezin izango dira sartu 2020ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko gastuak, ezta dirulaguntzaren aldia amaitu ondorengokoak ere. Ekarpentzako finantzarioa ezin da erabili zorrak ordaintzeko, ezta edozein eratako finantza eragiketarako amortizatze ere.

Laguntza hauek bateragarriak izango dira entitate adjudikaziodunak jasotako beste edozein laguntza ekonomikorekin, baldin eta dirulaguntzak proiektuaren gainfinantzaketa sortzen ez badu eta beste **finantza erakunde edo banku fundazio** batek finantzatzen ez baditu.

Erakunde onuradunak, BBKrengandik veste laguntzarik jasotzen badu, ondorengoa aztertuko da:

- Kudeaketa eta administrazio gastuak, ezin izango dira izan aurrekontu handiena duen proiektuaren % 10 baino handiagoak. Egiturara bideratzen diren kopuruak, ez duela Erakunderaen gain-finantziario bat suposatzen (pertsonek, alukairuak...), edozein kasutan, BBK-k hala eskatuta, ikuskatze bat ahalbidetuz.

Esleitutako zenbatekoa honela ordainduko da, oro har: %80 lankidetzaren hitzarmena sinatzen denean, eta gainerakoa proiektua amaitutakoan, kontuak eman ondoren.

5. ESKAERAK AURKEZTEA

Proiektuetarako laguntzak eskatzeko, beharrezkoa da BBKren webguneko (www.bbk.eus) **BBK ETA ZU** atarian **izena ematea**.

Erakundearen erabiltzailea sortutakoan, **“BBK Proiektuak”** atalera joan behar da, 2020ko BBK Deialdiaren programari dagokion inprimakia bete.

BBK ETA ZU atarian erregistratuta bazaude, edozein unetan jakingo duzu eskaera bakoitzaren egoera, eta aldatu ahal izango duzu izena emateko aldia. BBK ETA ZU atariaren bidez aurkeztu behar da dokumentazio guztia. Posta elektronikoko bidez (bbkproiektuak@bbk.eus) erantzungo zaie galdera guztiei.

2020ko otsailaren 17ko asteen zabalduko da eskaerak aurkezteko epea, eta **2020ko martxoaren 16a** izango da BBKn haiek jasotzeko azken eguna.

Ez da onartuko eskaerarik ezarritako epea amaitutakoan.

Proiektuak aurkezten badira, oinarrien agiri hau onartzen dela ulertuko da, baita BBKren ebazpena ere, zeina ezeztatzina izango baita

6. BBK-K EMATEN DUEN DOKUMENTAZIOA

Behean aipatzen den dokumentazioa www.bbk.eus webguneko BBK ETA ZU atarian egongo da, **"Proiektuen 2020ko deialdia"** atalean.

- **2020ko BBK Deialdiaren oinarriak**
- **Inprimakia betetzeko gida**
- **Proiektu proposamenaren eredia**
- **Erantzukizunpeko adierazpena**
- **BBKren kode etikoa**
- **Memoria teknikoaren eredia**

7. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Inprimakia oinarrien agiri honetako 5. klausulan adierazi bezala betetzeaz gain, dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- **Proiektuaren proposamena**
- **Erantzukizunpeko adierazpena**

Eskaera betetakoan, inprimakiaren azken orrialdean, **"dokumentazioa"** atala aurkitzen da. Atal horretan, eskatutako dokumentuen goitibeherako zerrenda irekiko da. Erabiltzaileek beraien gailutik igo nahi den dokumentua aukeratu beharko dute, eskaeran erantsita gera dadin.

Izena emateko epean, dokumentuak alda daitzeke, kontutan izanik bat kargatzen den bakoitzean, aurrekoa ordeztuko duela.

8. PROIEKTUEN HAUTAPENA ETA DEIALDIAREN EBAZPENA

Oinarrien agiri hauen 3. klausulan adierazitako balorazio irizpideen arabera ebaluatuko ditu BBK-k proiektuak.

2020ko apirilaren 30a baino lehen ebatziko du BBK-k deialdia. Erakunde bakoitzari emango dio ebazpenaren berri, eta prozesuari gardentasuna emateko, jendaurrean ere jarriko du, www.bbk.eus webgunearen bidez eta egokitzen dituen hedabide eta sare sozialen bidez.

Era berean, hitzarmena sinatu ondoren proiektuan aldaketaren bat egiten bada, horren berri emango zaio BBKri, onar dezan.

9. LANKIDETZA HITZARMENA FORMALIZATZEA

Lankidetza hitzarmen bat sinatuta formalizatuko da erakunde onuradunaren eta BBKren arteko lankidetza. Indarreko legeriaren mende egongo da hitzarmen hori, eta, bertan, bi alderdien eskubideak eta betebeharrak zehaztuko dira, baita, besteak beste, proiektua gauzatzeko betea, lankidetzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua eta proiektuaren segimendua ere.

Agiri hori formalizatzeko, beharrezkoa izango da aukeratutako proiektuek dokumentu hau aurkeztua-tua izatea, apirilaren **30tik maiatzaren 8ra bitartean**, BBKren webguneko (www.bbk.eus) BBK ETA ZU atariaren bidez:

- Erakunde eskatzailearen **estatutuak**.
- Dagokion **erregistroan inskribatuta** egotearen ziurtagiria.
- **Identifikazio fiskaleko txartela**.
- Erakundearen legezko ordezkariaren **NANA**.
- Pertsona eskatzailea **ordezkatzeko ahalmena** edo, hala badagokio, estatutuen arabera erakunde eskatzailearen ordezkariaren ahalmena ematen dion karguaren izendapena.
- Kontuaren **titulartasunaren ziurtagiria**.
- **Erakundearen logotipoa**.

Erakundeak aurretik sartu badu dokumentazio hori **“Erakundearen dokumentuak”** atalean, dokumentazioa eguneratuta dagoela begiratu beharko du, eta hitzarmena sinatzean dokumentu guztiek balio dutela.

Gainera, erakundeak berriro sartu beharko du eskaeran, **“Bankuko datuak”** eremua betetzeko. Ere-mu hori dokumentazioa entregatzeko ezarritako epean aktibatuko da.

2020ko urriaren 31 baino lehen sinatuko da lankidetza hitzarmena. Hitzarmena, BBKrenak ez diren arrazoiengaitik, epe horretan sinatuko ez balitz, erakundeak onartutako laguntza jasotzeko aukera galduko luke.

Dokumentazioa entregatutakoan ikusten bada erakundeak ez dituela betetzen deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak, baliteke laguntza behin-behinean ukatzea.

10. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

Proiektua amaitutakoan, hitzarmenaren dokumentuan adieraziko den bezala, erakundeak gehienez 2 hilabete izango ditu BBKri ziurtatzeko proiektua gauzatu duela amaitzen denetik. Zehazki, proiektua amaitu ondoren, justifikazio hau aurkeztu beharko da BBK ETA ZU atariaren bidez:

- a) **“Dokumentazioa”** atalean, **“MEMORIA TEKNIKOA”** dokumentua erantsi beharko da (**“BBK-k emandako dokumentazioa”** atalean aurki daiteke bete beharreko eredu).)
- b) **“Memoria ekonomikoa”** atalean, justifikazio ekonomikoaren datuak eguneratu beharko dira. (Atal hau eskaerako datuekin beteta egongo da. Haien ordez, benetako datuak eguneratu beharko dira, eta, gainera, atal berean, justifikazio fakturen zerrenda erantsi beharko da).
- c) **“Gizarte eraginaren fitxa”** atalean: Proiektuaren eragin sozialaren benetako datuak. (Atal hau eskaerako datuekin beteta egongo da. Haien ordez, benetako datuak idatzi beharko dira)
- d) **“Dokumentazioa”** atalean, **“IKUSGARRITASUN JARDUEREN JUSTIFIKAZIOA”** txostena erantsi beharko da. On-line eta off-line hedabideetan egindako zabaltze eta ikusgarritasun ekintzen froga grafikoa erantsiko da, bai barne publikora, bai gizarte orokorrera bideratuak izan direnak

Erakunde onuradunak hitzematzen du proiektuari eta harekin erlazionatutako inbertsio eta gastuei buruzko informazio edo dokumentazio guztia emango duela, BBK-k hala eskatuz gero, eta proiektua ikuskatzeko baimena emango diola BBKri.

BBK-k ikusiz gero deialdiaren baldintzak, osorik edo partzialki, betetzen ez direla, ordaindu dituen zenbatekoak itzultzeko eskatu ahal izango du, eta egokitzat jotzen dituen ekintza judicial oro gauzatzeko aukera izango du.

11. AZKENA

Oinarrien agiri honetan jasota ez dauden inguruabarrak edo alderdiak BBKren irizpideari jarraikiz ebatziko dira, eta ezin izango da errekurtsorik aurkeztu haren erabakien kontra.

Deialdiaren oinarrietako punturen bat interpretatzean zalantzak edo desadostasunak sortuko balira, BBKren irizpidea nagusituko da.